

UNTXI TXIKIA

9. KAPITULUA:
KORROAN JOLASEAN.

10. KAPITULUA:
IZARRARENIZPIAK.

9. KAPITULUA: KORROAN JOLASEAN.

10. KAPITULUA: IZARRARENIZPIAK.

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena 2 or.

5. Kapituluak:

- Helburuak 3 or.
- Ekintzak 4 or.
- Gidoi literarioa blokeka denborak zehaztuz 8 or.

6. Kapituluak:

- Helburuak 16 or.
- Ekintzak 17 or.
- Gidoi literarioa blokeka denborak zehaztuz 20 or.

Bibliografia 26 or.
Egileak 27 or.

GIDA DIDAKTIKOAREN AZALPENA.

BIDEOKASETE HAU HAUREN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOKO 2. ETA 3. IKASMAILETAKO HAURREI ZUZENDUA DA.

Gure lanaren ardatz nagusia da material lagungarria eskaintzea komunikazioaren eremuari dagozkion helburuak lantzeko. Hauek dira bereziki landu nahi ditugun helburuak:

- e) Inguru hurbila jakin-minezko eta ardurazko jarreraz begietsiz eta aztertuz, inguru hori osatzen duten elementuen ezaugarri eta propietate esanguratsuenak identifikatzea, eta haien artean sortzen diren erlazioetariko batzuei antzematen laguntzea.
- f) Haurren inguruko zenbait adierazpen kulturazko ezagutuz, eta haiekiko errespetua, interesa eta parte-hartzezko jarrerak garatuz, inguru hurbileko beste adierazpen kulturazko batzuekiko interesa eta errespetua lantzen hastea.
- g) Haurrek bizi, ezagutu edo irudikatu duten errealitatearen zenbait alderdi antzeztea eta gogoratzea, eta jolasek nahiz antzezteko eta adierazteko beste forma batzuek eskaintzen dituzten aukera sinbolikoen bitartez aditzera ematea.
- h) Hitzezko mintzaira komunikazioko egoera ohikoetara egokituz erabiltzea: besteek diotena ulertzeko eta ulertua izateko; ideiak, sentimenduak, esperientziak eta desioak adierazteko; esanguren eraikuntzan aurrera egiteko; norberaren jokabidea arautzeko eta besteenean eragina izateko.
- i) Haurrek, eskura dituzten baliabideen bitartez, adierazteko ahalmenak aberastea eta zabaltzea; haien adinari dagozkion adierazpen artistikoak ezagutzen eta haietaz jabetzen laguntzea.

9. KAPITULUA: KATTALINEN ETXEAN

HELBURUAK:

- Gozatzea.
- Ahozko testuak ulertzea.
- Ahozko hizkuntza erabiltzea ideiak azaltzeko.
- Irudikapen ez-konbentzionala erabiltzea adierazpide gisa.
- Zirkulua bereiztea.

JARRERAZKOAK:

- Ahozko mintzaira tresnatzat hartzea eta balioestea norberaren ideiak eta interesak adierazteko zein besteenak ezagutzeko.
- Kulturako tradizioaren testuei dagokienez, arreta eta interesa izatea.
- Nork bere eta besteen ekoizpen plastikoak atsegin izatea.
- Jolas-dinamikak berak sortzen dituen antzezpenetan parte hartzeko ekimena, ziurtasuna eta konfiantza izatea.

KONTZEPTUAK:

- Zirkulua.
- Ahozko mintzaira, komunikatzeko tresnatzat hartua.
- Kulturako tradizioaren ahozko testuak.
- Kontrola: jarduera, mugimendua, arnasketa, atsedena.

PROZEDURAZKOAK:

- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak ulertzea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak adituz.
- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak egitea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak erabiliz.
- Kulturako tradizioako abesti batzuk ezagutzea, ulertzea, eta intonazio eta doinu egokiz kantatzea.
- Zirkuluak bereiztea.
- Sailkapen dikotomikoa egitea eitearen arabera: zirkulua.
- Zirkuluak egiten hastea.
- Hizkuntza idatzi ez-konbentzionala hainbat asmorekin erabiltzea: Plastikazko lanez baliatzea gertakariak, bizipenak, fantasiak eta desioak adierazteko.
- Mugimenduaren aukerak erabiltzea besteekin elkarri eragiteko bide gisa
- Egoerak identifikatzerakoan eta imitatzeke jokoetan parte hartzea.

EKINTZAK

HIGIMENA ETA HIZKUNTZA

- Eduki guztietan, lehendabizi, gorputzarekin bizipenak izaten edo gogoratzen hasiko gara.
- Gelan kolore bereko paperezko formak egin, eta lurrari erantsi. Haur bat azeria izango da, eta besteak harrapatu egin behar ditu. Haurrak zirkuluen gainean jartzen badira, azeriak ezingo ditu harrapatu.
 - Etxeko txokoan gailetak egiten jolastu: zirkularrak eta bestelakoak.

HIZKUNTZA

- Kapitulua ulertzea: umeei kontrazi, irakasleak lagunduta:
TXIKI.- (Eguzkia hartzeko imintzioa eginez.) Nik Eguzkia jango dut!
KATTALIN.- Ez, ezta pentsatu ere! Nirea da!
TXIKI.- Orduan, Ilargia!
KATTALIN.- Hori ere nirea da!
BELTXIKI.- Harra ere zurea da, ez da?
KATTALIN.- Bai, hauek nireak dira, eta ezin dira jan.
BELTXIKI eta TXIKI.- Orduan, zertarako erakutsi dizkiguzu? Inbidia emateko?
KATTALIN.- Nik ez zaituztet gonbidatu! Ikusteko erakutsi dizkizuet, baina ez jateko.
TXIKI.- (Gaileta hartu nahian.) Ni goseak nago! Zure amak jateko esan du!
KATTALIN.- Nireak dira, eta ez dizkizuet emango!
BELTXIKI.- Zergatik?
KATTALIN.- Oso politak dira, eta pena ematen dit jatea; apurtu egingo dira!
BELTXIKI.- Hori tontakeria da! Gailetak jateko dira, eta nik jan egingo ditut. (Ilargia hartu, eta jan egiten du.)
KATTALIN.- Ez, ez, ez jan! Ama, Beltxikik Ilargia jan dit!

Amaaaaa! (Negarrez jarraitzen du.)

AMA.- Jakin ote daiteke zer gertatzen den hemen? Kattalin, zergatik egiten duzu negar?

KATTALIN.- (Negarrez jarraitzen du.)

BELTXIKI.- (Jaten.) Negarrez hasi da Ilargia jan dudalako!

Baina gailetak jateko ziren eta...

TXIKI.- Ilargia hartu duelako haserretu da.

AMA.- (Haserre.) Kattalin, ez zaitez horrela jar. Gailetak jateko dira. Gero, gehiago egingo ditugu. (Kontsolatu nahian.) Ez egin negar. Beste bat egingo dugu!

BELTXIKI.- Ikusten, Kattalin? Gailetak jateko dira; gero, gehiago egingo ditugu (Harra hartzeko prest.)

KATTALIN.- Ez! Ez kendu hori. Jan itzazue bestelakoak!

·Egoeraren transposizioa: imitazioa egin. Lehenago, pertsonaiak banatu: zer behar den, non kokatuko diren.

·Abestia buruz ikasi.

MATEMATIKA ETA HIZKUNTZA

·Materiala aurrean dutela, matematikako buruketaz eztabaidatu:

Etxeko txokoan egin dituzten gailetak gorde: zirkularrak kutxa batean, eta ez-zirkularrak beste batean. Gero, kutxei etiketa ipini.

·Zorro batean hainbat formatako piezak sartu, eta haurrei eskatu zirkuluak edo ez-zirkuluak ateratzeko (Agindua ahoz eman, edo haiek sortutako etiketa erabili).

·Kodifikatzea: eskatu ezen marrazkien bidez konta dezatela Txikiren lagunei gertatutakoa.

MUSIKA ETA HIZKUNTZA:

· Taldean abestu: “Gaileta-maleta” eta “Ala kinkirrinera”.

PLASTIKA ETA HIZKUNTZA:

·Egitura eta kolore ezberdineko paperetan zirkuluak ebaki, eta lauki horiekin “collage” bat egin.

·Gomets zirkularrekin (tamaina eta kolore ezberdinekoekin) beste irudi batzuk egin: harra, aurpegia, puztukiak, piruleta, baloiak, ...

· **Kontakizunaren haria, blokeka eta denborak zehaztuz**

9. KAPITULUA: KORROAN JOLASEAN

HONTZA.- Kaixo, neska-mutilok! Gaur, nik bakarrik kontatuko dizuet ipuina, nire adiski detxoak ez dira etorri eta.

IZARRA.- (Zerutik behera doala.) Itxaron, banator eta! Ez hasi ni gabe!

HONTZA.- Ilargia ez da etorriko?

IZARRA.- Ez, eta uste dut ez dela berriro etorriko, Kattalinek eta haren adiskideek jan egin zuten eta.

HONTZA.- Hori astakeria! Ezin daiteke izan! Ilargia oso handia da! Ez da Kattalinen ahoan sartzen!

IZARRA.- Ezetz? Bada, Kattalinek Ilargia eta Eguzkia jan zituen atzo.

HONTZA.- Adarra jo gabe, e? Hori ezin daiteke izan!

IZARRA.- Nik ikusi nuen... begira... oraintxe kontatuko dizut nola gertatu zen.

IZARRA.- (Offean.)

Lehengo egunean, Txiki eta haren adiskideak etxean zeuden, eta ezin izan ziren irten euria ari zuelako. Hasieran, aspertu egin ziren, baina gero ideia bat bururatu zitzaien:

IZARRA.- (Offean.)

KARATULA.- Bazen behin untxi txiki bat. Amatxorekin eta aitatxorekin bizi zen. Haren etxea lur azpian zegoen, eta, han, haien ohe lastozkoak.

(Kattalinen etxean, gurasoak ezkurak ehotzen ari dira.)

KATTALIN.- Aita, ama, aspertuta nago. Ezin naiz irten?

AMA.- Ez, maitea. Negua laster etorriko da, eta oso eguraldi txarra egingo du. Gaur, etxean geratuko zara.

KATTALIN.- Baina aspertu egingo naiz!

AITA.- Pentsa ezazu zer egin dezakezun ez aspertzeko: lagun iezadazu!

KATTALIN.- Zertan?

AMA.- Ezkurak ehotzen. Gero gailetak egingo ditugu.

AITA.- Atertzen duenean, zure adiskideen etxera joango gara, eta gonbidatu egingo ditugu.

KATTALIN.- Orduan, asko egin beharko ditugu, tripontzi hutsak dira eta!

AMA.- Begira, ondo nahastu behar da. Ondoren, horrela zapaldu, eta, gero, zirkuluaren forma emanez egin behar dituzu.

KATTALIN.- (Ezjakintasuna adieraziz.) Zirkulu zer?

AMA.- Zirkuluak egin behar dituzula! Zirkuluak honelakoak dira: ez dute puntarik, eta biribilak dira.

KATTALIN.- Rssst! Kito! Begira zer egin dudana, ama!

AMA.- Oso ondo! Orain, jarraitu, asko egin behar dituzu eta.

KATTALIN.- Orain muturrak ditu, begira!

AMA.- Orain ez da zirkulua, eta, gainera, hainbeste aldiz ukitzen badituzu, gailetak zikin-zikin geratuko dira.

AMA.- Lagundu behar didazu, ala jolasean jarraitu behar duzu?

KATTALIN.- Zuk esan duzun bezala egingo ditut, ama; baina, gero jolasten utziko didazu?

AMA.- Soberan geratzen den orearekin nahi duzuna egiten ahalko duzu.

Gaileta-maileta esnetan sartuta...

KATTALIN.- (Bat-batean, gaileta handi batekin.) Zirkulu handi honekin Ilargia egingo dut. (Sailean agertzen den Ilargiaren kopia egin du.)

KATTALIN.- Kito! Begira zer egin dudan, ama! Begira, ama, Ilargia egin dut! Iufala! Orduan, asko egin beharko ditugu.

KATTALIN.- Zirkulu txikiekin har bat egin dezaket.

AMA.- Oso ondo, Kattalin, oso politak dira! Gero, zure adiskideei emango dizkiegu.

ILARGIA.- Atertu zuenean, Kattalinen adiskideak haren etxera abiatu ziren.

TXIKI eta BELTXIKI.- Arratsalde on!

AMA.- Arratsalde on! Sar zaitezte, kanpoan hotz egiten du eta!

TXIKI.- Gaileta-usaina urrutitik nabaritu dugu, eta lasterka etorri gara. Emango diguzu gailetaren bat?

AMA.- Oraindik erre gabe daude. Labean sartuko ditut; zuek, bitartean, jolastu.

AZERIA.- Hau gosea! Zer edo zer jan behar dut, eta lehenbailehen; bestela, agur Azeria!

00:09

AZERIA.- Ez dut indarrik! Ezin dut ezer egin! Ezin dut korrika egin! Honela, nola harrapatuko dut ezer?

AZERIA.- Nfffff, f! f! Usain hori, zerena ote da?

AZERIA.- Gailetak... Nfffff! f! f! Untxiak eta... Nfffff, f! f! Katagorria! Baina, alferrik izango da. Ezingo ditut harrapatu. Beti ihes egiten didate; oso azkarrak dira.

TXIKI.- (Eguzkia hartzeko imintzioa eginez.) Nik Eguzkia jango dut!

KATTALIN.- Ez, ezta pentsatu ere! Nirea da!

TXIKI.- Orduan, Ilargia!

KATTALIN.- Hori ere nirea da!

BELTXIKI.- Harra ere zurea da, ez da?

KATTALIN.- Bai, hauek nireak dira, eta ezin dituzu jan.

BELTXIKI eta TXIKI.- Orduan, zertarako erakutsi dizkiguzu? Inbidia emateko?

KATTALIN.- Nik ez zaituztet gonbidatu! Ikusteko erakutsi dizkizuet, baina ez jateko.

00:10

TXIKI.- (Gaileta hartu nahian.) Ni goseak nago! Zure amak jateko esan du!

KATTALIN.- Nireak dira, eta ez dizkizuet emango!

BELTXIKI.- Zergatik?

KATTALIN.- Oso politak dira, eta pena ematen dit jatea, apurtu egingo dira!

BELTXIKI.- Hori tontakeria da! Gailetak jateko dira, eta nik jan egingo ditut. (Ilargia hartu, eta jan egiten du.)

KATTALIN.- Ez, jan! Ama, Beltxikik Ilargia jan dit!

(Negarrez jarraitzen du.)

AMA.- Jakin ote daiteke zer gertatzen den hemen? Kattalin, zergatik egiten duzu negar?

KATTALIN.- (Negarrez jarraitzen du.)

AMA.- (Haserre.) Kattalin, ez zaitez horrela jar. Gailetak jateko dira. Gero, gehiago egingo ditugu. (Kontsolatu nahian.) Ez egin negar. Beste bat egingo dugu!

BELTXIKI.- Ikusten, Kattalin? Gailetak jateko dira; gero, gehiago egingo ditugu (Harra hartzeko prest.)

KATTALIN.- Ez! Ez kendu hori. Jan itzazue bestelakoak!

BELTXIKI.- (Inguruari begiratu.) Zeintzuk?

AMA.- Bai, egia da. Gaileta gehiago ere egin ditugu: zirkuluak, asko daude...

(Etxezulorantz abiatuz.) Oraintxe ekarriko ditut.

BELTXIKI.- Goazen laguntzera, goazen laguntzera Txiki.

AZERIA.- A, Kattalin negarrez eta bakar-bakarrik! Harrapatu, eta jan egingo dut!

BELTXIKI.- (Offean) Kattalin, etorri! Zure amak gaileta asko ditu, eta ore gehiago ere badu. Egingo du berriro Ilargia...! Ai Ama! Ene! Azeria!

Azeria! Lagundu!

AMA.- (Korrika agertzen da.) Zer gertatzen da?

Ene! Kattalin, zatoz nirekin! Aldendu Azeriarengandik!

AZERIA.- Lasai zaitezte! Gaixoa bakarrik eta negarrez zegoenez gero, kontsolatzera etorri naiz.

AMA.- (Haserre.) Eskerrik asko, baina nik kontsolatuko dut. Alde hemendik!

AMA.- (Txikiri eta Beltxikiri.) Goazen etxera!

TXIKI.- Eta nola joango gara etxera? Azeria hor geratu da. Irteten bagara, harrapatu egingo gaitu!

BELTXIKI.- Eta jan, gailetak bezala!

AZERIA.- (Itxaropena galduta.) Kattalin txiripaz libratu da! Mukizu hauek beti libratu egiten dira! Hau gosea!

AZERIA.- Kontxo, zirkuluak dira! Eskolan ikasi nuen hau! Ez dute puntarik, biribil-biribilak! (Maisuarena egiten.)

00:14

AZERIA.- Baina, Txikik eta Beltxikik etxera joan beharko dute. Dagoeneko iluntzen hasi du. Hemen geratuko naiz, eta, Kattalinen etxetik ateratzen direnean, harrapatu, eta jan egingo ditut.

TXIKI.- Azeria kanpoan geratu da, gure zain dago. Ezingo gara etxera joan.

BELTXIKI.- Jan egingo gaitu, gailetak bezala. (Esaten duen bitartean, ahotsa ahuldu egiten zaio izuaren ondorioz.)

KATTALIN.- Gure gailetak jaten ari da. Horrek du azala!

AMA.- Horixe! Bera engainatuko dugu! Lagun iezadazue.

AMA.- Kattalin, egizu zirkulu handi-handia. Zuk, Beltxiki, txikia, eta zuk, Txiki, Beltxikirena bezalakoa. Nik, berriz, ertaina egingo dut!

AMA.- Untxi bat dela pentsatuko du. Gaua denez gero, ez da konturatuko!

KATTALIN.- Belarriak falta zaizkio.

AMA.- Oraintxe bertan egingo ditugu.

BELTXIKI.- Baina ezin dira zirkularrak izan, gure belarriek punta dute eta.

AZERIA.- Bat irten da! Orain bai jango dudala! Isil-isilik dabil nik ez entzuteko, baina ikusi dut. (Barrez.) Hau betekada hartuko dudana!

AMA.- Tontolapiko horri ederki jo diogu adarra! (Barrez.)

Ziria sartu diogu! Ufa!

00:16

AMA.- Lotan dagoela aprobetxatuz, etxera joan behar duzue! Azkar! Nik lagunduko dizuet!

KATTALIN.- Ama, gau beltza da, ilun dago, ez da ezer ikusten. Ezin dira lo egiten hemen geratu?

AMA.- Horien gurasoek ez dakite ezer, eta kezkatuta egongo dira. Goazen, azkar! Baina, tori! Eraman itzazue gaileta hauek etxera.

KATTALIN.- (Beltxikiri.) Ilargia jan duzulako, gaua ilun-ilun dago. Ez da hala, ama?

BELTXIKI.- Bai?

(Umore onez.) Bada, Txikik ederragoa egin du. Eguzkia jan du! Ez da berriro sortuko?

TXIKI.- Tira, beste bat egiten ahal dugu. (Umore onez.) Hartara, nahi dugunean sortuko da.

AMA.- (Umore onez.) Hori burutazioa, hori! Zuek jan zenutena gaileta besterik ez zen. Bihar ere sortuko da berriro.

KATTALIN.- (Temati.) Orduan, zergatik ez da Ilargia atera?

AMA.- Ilargia atera da, baina ez dugu ikusten. Ilunpean dago; egun gutxi barru, izango dugu berriro ikusteko aukera!

KATTALIN.- Bihar gaileta gehiago egingo ditugu?

AMA.- Bai, nahi baduzue...

TXIKI.- Nik, bihar, Izar bat egingo dut jateko!

BELTXIKI.- Egia da! Izar-formakoak egingo ditugu, eta gero jan, e, Kattalin? Jan eta gero, agur Izarrak!

KATTALIN.- Ez, nire amak ezetz esan dit. Ez da hala, ama?

BELTXIKI.- Azeriarentzat gaileta handi bat egingo dugu. Horrela, bakean utziko gaitu.

AMA.- Hori bai ideia ona!

IZARRA.- Hau sustoa! Uste nuen Ilargia betiko desagertuko zela.

ZUHAITZA.- (Adarra jotzeko asmoz.) Kontuz ibili, gero! Bihar Izarrak egingo dituzte, eta zast!
Agur zu!

IZARRA.- (Haserre.) Ez nazazu beldurtu, Kattalinen amak esan du ez dela egia!

ZUHAITZA.- Eta oker balego?

IZARRA.- (Haserre.) Beldurtu egin nahi nauzu! Utzi bakean!

Banoa!

IZARRA.- (Badoa zirikatuz eta iseka eginez.) Eta Zuhaitza egiten badute, zeeer? Zast! Agur
Zuhaitza!

ZUHAITZA.- Ez haserretu, Izartxo! Txantxetan ari nintzen! Agur! ZUHAITZA.- (Hurrei.)
Nirekin haserretu da, baina ni txantxetan ari nintzen. Tira, biharko pasatuko zaio haserrea. Agur,
adiskideok!

10. KAPITULUA: IZARRAREN IZPIA.

HELBURUAK:

- Gozatzea.
- Ahozko testuak ulertzea.
- Ahozko hizkuntza erabiltzea ideiak azaltzeko.
- Irudikapen ez-konbentzionala erabiltzea adierazpide gisa.
- Triangelua bereiztea.
- Hiru zenbakia: kardinala bereiztea. Hiru zenbakia deskonposatzea eta batuketarekin esperimentatzea.
- Hiru zenbakia: ordinala bereiztea.

JARRERAZKOAK:

- Ahozko mintzaira tresnatzat hartzea eta balioestea norberaren ideiak eta interesak adierazteko zein besteenak ezagutzeko.
- Kulturako tradizioaren testuei dagokienez, arreta eta interesa izatea.
- Nork bere eta besteen ekoizpen plastikoak atsegin izatea.
- Jolas-dinamikak berak sortzen dituen antzezpenetan parte hartzeko ekimena, ziurtasuna eta konfiantza izatea.

KONTZEPTUAK:

- Triangelua.
- Hiru zenbakia: kardinala, deskonposizioa eta batuketa.
- Ahozko mintzaira, komunikatzeko tresnatzat hartua.
- Kulturako tradizioaren ahazko testuak.
- Kontrola: jarduera, mugimendua, arnasketa, atsedena.

PROZEDURAZKOAK:

- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak ulertzea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak adituz.
- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak egitea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak erabiliz.

- Kulturako tradizioko abesti batzuk ezagutzea, ulertzea, eta intonazio eta doinu egokiz kantatzea.
- Hiru zenbakia: kardinala bereiztea. Hiru zenbakia deskonposatzea eta batuketarekin esperimentatzea.
- Hiru zenbakia: ordinala bereiztea.
- Triangelua bereiztea.
- Sailkapen dikotomikoa egitea eitearen arabera: triangelua.
- Triangeluak egiten hastea.
- Hizkuntza idatzi ez-konbentzionala hainbat asmorekin erabiltzea: Plastikazko lanez baliatzea gertakariak, bizipenak, fantasiak eta desioak adierazteko.
- Mugimenduaren aukerak erabiltzea besteekin elkarri eragiteko bide gisa.
- Egoerak identifikatzerakoan eta imitatzeke jokoetan parte hartzea.

EKINTZAK

HIGIMENA ETA HIZKUNTZA

Eduki guztietan, lehendabizi, gorputzarekin bizipenak izaten edo gogoratzen hasiko gara.

- Gelan kolore bereko paperezko formak egin, eta lurrari erantsi. Haur bat azeria izango da, eta besteak harrapatu egin behar ditu. Haurrak triangeluen gainean jartzen badira, azeriak ezingo ditu harrapatu.
- Makilekin triangeluak egin. Aldeak eta erpinak zenbatu. Galdetu ea egiten ahal den lau erpineko triangelurik. Ondoren, triangeluz triangelu ibili, barruan sartuz eta ertzak mugitu gabe.
- “Azeri harrapatzailean” jolastu: (hirukoteak eginez) Hiru haur besteen bila joango dira. Harrapatuak harrapatzera joango dira, baina hirukoteak eginez.

HIZKUNTZA

·Kapitulua ulertzea: umeei kontarazi, irakasleak lagunduta:

IZARRA.- Gabon, Ilargia!

ILARGIA.- Gabon, Izarra! Hau isiltasuna, dena geldi eta lasai dago hemen.

IZARRA.- Behean ere dena lasai-lasai dago. Hemendik ikusten dut; denak geldi-geldi daude.

ILARGIA.- Nola ez! Hotz egiten du, eta denak izoztuta daude. Gure adiskidea, Zuhaitza, hotzak egongo da. Joango gara harekin egotera?

IZARRA.- Egia! Hosterik gabe dago, eta hotzak egongo da! Nik berotuko dut.

ILARGIA.- Eta ni?

IZARRA.- (Ilargiari.) Nora ote doa hain azkar?

ILARGIA.- Galdetu egingo diogu.

(Biak korrika, Hodeiaren atzetik. Hurbiltzen direnean...)

ILARGIA.- Nora zoaz, Hodeia?

HODEIA.- Elurra botatzera. Beteta nago, eta zama bota egin behar dut.

IZARRA.- Ez, ez bota hemen! Hortxe behean da gure adiskide Zuhaitza, eta hotzak dago. Joan zaitetz beste leku batera!

HODEIA.- Ez diot minik egingo, elurra oso ona da. Ez diot kalterik egingo. Gainera, zuk ez didazu agindurik eman behar. Kendu paretik! (Bultzaka.)

IZARRA.- (Berriro aurrean.) Aurrera jarraitu nahi baduzu, ez diozu nire adiskide Zuhaitzari elurrik botako!

ILARGIA.- Izartxo, ez izan tematia! Hodeiak arrazoi du. Zuhaitzak elurra behar du, ez dio kalterik egingo.

IZARRA.- Esan dut ezetz, eta kito!
HODEIA.- Ken zaitez hortik!
IZARRA.- Baldintza batekin!
HODEIA.- Zer baldintza eta zer demontre! Zuk ez duzu agintzen!
IZARRA.- Pasatu nahi baduzu, ez diozu nire adiskide Zuhaitzari elurrik botako!
HODEIA.- Eta, jakin ote daiteke zein den zure adiskidea? Han behean asko ikusten ditut.
IZARRA.- Hostorik gabe dagoena!
HODEIA.- Erraza! Jakintsu hori! Zuhaitz asko dago neguan hostorik gabe!
IZARRA.- Bai, baina nire adiskidea ipuinak kontatzen dituen da!
HODEIA.- Hontzaren etxea daukana?
IZARRA.- Bai, horixe bera.
HODEIA.- Zuk ez nauzu ulertzen. Elurra ona da, eta bota egin behar dut. Lehertzeko zorian nago.
IZARRA.- Bota, baina nire adiskideari ez.
HODEIA.- Nik ez dut horrenbesteko punteriarik. Elurra emeki-emeki askatuko dut, eta dena estaliko du. Ezin da hutsunerik utzi.
HODEIA.- Utzi pasatzen! Lehertzeko zorian nago!
IZARRA.- Ezta pentsatu ere! Zoaz beste leku batera elurra botatzera!
(Eztanda: Bum! Kras!)
HODEIA.- Tori elurra! Ez zenuen nahi? Bada, orain, izarra zaitez!
IZARRA.- (Negarrez.)
ILARGIA.- (Hodeiari.) Astakilo halakoa! Izpiak apurtu dizkiozu!
IZARRA.- (Negarrez.) Zer diozu?
ILARGIA.- Izpi batzuk falta zaizkizula. Eztandarengatik erori egin zaizkizula!

·Egoeraren transposizioa: imitazioa egin. Lehenago, pertsonaiak banatu: zer behar den, non kokatuko diren.

MATEMATIKA ETA HIZKUNTZA

·Materiala aurrean dutela, matematikako buruketaz eztabaidatu:
Etxeko txokoan hamaiketako egiteko aitzakiaz, hiru gauza ipini, eta, jan baino lehen, galdetu zein ordenan jango dituzten.
·“Sandwich”ak egiteko ogiaz triangeluen eta ez-triangeluen forma duten ogitartekoak egin, eta, erretiluetan kokatu ondoren, estali. Etiketak egin, eta gero haurren artean banatu.
Haurrek honela eskatu beharko dute: triangeluaren forma duena ala triangeluaren forma ez duena.
·Zorro batean hainbat formatako piezak sartu, eta hurrei eskatu triangelua edo ez-triangelua ateratzeko. (Agindua ahoz eman, edo haiek sortutako etiketa erabili)
·Kodifikatzea: eskatu ezen marrazkien bidez konta dezatela Txikiren lagunei gertatutakoa.
·Haur bati hiru bola txiki eman, eta eskatu bi eskuetan ezkutatzeko.
Beste haurrek asmatu behar dute esku batean zenbat dituen, beste eskukoak ikustean. Gauza bera egin daiteke hiru bolatxoak hiru edalontzietan banatuz. Haurrek asmatu behar dute zenbat bola dauden besteetan, edalontzi batekoa edo bitakoa ikustean.
·“Hiruko lerroan” jolastu.
·Ahate-jokoaren antzeko jokoetan jolastu, baina dadoaren gehienezko puntuak lau izanik.

MUSIKA ETA HIZKUNTZA:

·“Hiru andreak” abesterakoan, triangeluekin lagundu.
·“Gaileta-maileta” abesterakoan, triangeluekin eta bestelako musika-tresnekin lagundu.

PLASTIKA ETA HIZKUNTZA:

·Egitura eta kolore ezberdineko paperez triangeluak ebaki, eta triangelu horiekin “collage” bat egin.

·Gomets hirukiekin (tamaina eta kolore ezberdinekoekin) beste irudi batzuk egin: pinua, izarra, teilatua, mendia, pailazoaren txanoa...

· **Kontakizunaren haria, blokeka eta denborak zehaztuz**

10. KAPITULUA: IZARRAREN IZPIAK.

IZARRA.- Gabon, Ilargia!

ILARGIA.- Gabon, Izarra! Hau isiltasuna, dena geldi eta lasai dago hemen.

IZARRA.- Behean ere dena lasai-lasai dago. Hemendik ikusten dut; denak geldi-geldi daude.

00:22

ILARGIA.- Nola ez! Hotz egiten du, eta denak izoztuta daude. Gure adiskidea, Zuhaitza, hotzak egongo da. Joango gara harekin egotera?

IZARRA.- Egia! Hosterik gabe dago, eta hotzak egongo da! Nik berotuko dut.

ILARGIA.- Eta ni?

IZARRA.- (Ilargiari.) Nora ote doa hain azkar?

ILARGIA.- Galdetu egingo diogu.

(Biak korrika, Hodeiaren atzetik. Hurbiltzen direnean...)

ILARGIA.- Nora zoaz, Hodeia?

HODEIA.- Elurra botatzera. Beteta nago, eta zama bota egin behar dut.

IZARRA.- Ez, ez bota hemen! Hortxe behean da gure adiskide Zuhaitza, eta hotzak dago.

Joan zaitetz beste leku batera!

HODEIA.- Ez diot minik egingo, elurra oso ona da. Ez diot kalterik egingo. Gainera, zuk ez didazu agindurik eman behar. Kendu paretik! (Bultzaka.)

IZARRA.- (Berriro aurrean.) Aurrera jarraitu nahi baduzu, ez diozu nire adiskide Zuhaitzari elurrik botako!

ILARGIA.- Izartxo, ez izan tematia! Hodeiak arrazoi du. Zuhaitzak elurra behar du, ez dio kalterik egingo.

IZARRA(offean).- Nik esan dut ezetz, eta kitto!

HODEIA.- Ken zaitetz hortik!

IZARRA.- Baldintza batekin!

HODEIA.- Zer baldintza eta zer demontre! Zuk ez duzu agintzen!

IZARRA.- Pasatu nahi baduzu, ez diozu nire adiskide Zuhaitzari elurrik botako!

HODEIA.- Eta, jakin ote daiteke zein den zure adiskidea? Han behean asko ikusten ditut.

IZARRA.- Hosterik gabe dagoena!

HODEIA.- Erraza! Jakintsu hori! Zuhaitz asko dago neguan hostorik gabe!

IZARRA.- Bai, baina nire adiskidea ipuinak kontaktzen dituen da!

HODEIA.- Hontzaren etxea daukana?

IZARRA.- Bai, horixe bera.

HODEIA.- Zuk ez nauzu ulertzen. Elurra ona da, eta bota egin behar dut. Lehertzeko zorian nago.

IZARRA.- Bota, baina nire adiskideari ez.

HODEIA.- Nik ez dut horrenbesteko punteriarik. Elurra emeki-emeki askatuko dut, eta dena estaliko du. Ezin da hutsunerik utzi.

HODEIA.- Utzi pasatzen! Lehertzeko zorian nago!

IZARRA.- Ezta pentsatu ere! Zoaz beste leku batera elurra botatzera!

(Eztanda: Bum! Kras!)

HODEIA.- Tori elurra! Ez zenuen nahi? Bada, orain, izarra zaitetz!

IZARRA.- (Negarrez.)

ILARGIA.- (Hodeiari.) Astakilo halakoa! Izpiak apurtu dizkiozu!

IZARRA.- (Negarrez.) Zer diozu?

ILARGIA.- Izpi batzuk falta zaizkizula. Eztandarengatik erori egin zaizkizula!

HODEIA.- (Haurrei.) Ni banoa, bestela...

ILARGIA.- Orain, hiru baino ez dituzu.

IZARRA.- Ezin daiteke izan!

IZARRA.- Bat, beste bat, eta beste bat. Egia da! Hiru baino ez ditut! Lehen baino gutxiago!

Non ote dira?

00:25

ILARGIA.- Lurrean! Orain bai joan behar dugula. Agian, gure adiskideak ikusi ditu.

IZARRA.- Dena elurrez estalita! Bai polita!

ILARGIA.- Goazen behera; ea, bada!

IZARRA eta ILARGIA.- (Zuhaitzari.) Gabon, Zuhaitz!

ZUHAITZA.- Ona eta ederra, elurra egin du eta.

ILARGIA.- Bai, ez dakizu nolako istilua izan duten Hodeiak eta Izarrak!

ILARGIA.- Zer duzu adarretan?

ZUHAITZA.- Elurra; ez da azukrea izango!

IZARRA.- (Barrezka.) Azukrea, hori bai ideia bitxia! (Atzapar batez elurra jateko keinua eginez.)

Azukrea oso atsegin dut, oso gozoa da! Ummmm!

IZARRA.- Zer da hau, Zuhaitz?

ZUHAITZA.- Ez dakit, ez dut inoiz ikusi. Nondik atera duzu?

IZARRA.- Zure adarretan zegoen zintzilik!

ZUHAITZA.- Arrastorik ez. Ez dut sekula horrelakorik ikusi, baina bai bitxia dela.

IZARRA.- Zuhaitza, esan zer edo zer. Zergatik zaude isilik?

ZUHAITZA.- Zuk ere itxura bitxia duzulako. Arraro samar zaude gaur!

ILARGIA.- Hiru izpi baino ez ditu, besteak erori egin zaizkio eta. Ez zenituen ikusiko, ez da?

ZUHAITZA.- Ez. Gainera, erori badira, elurrak estaliko zituen.

ZUHAITZA.- Dena dela, zure izpien forma du. Jantzi!

IZARRA.- Baina, nireak distiratsuak dira, eta hau ez. Gainera, nireak barrutik beteak dira, hau hutsa.

Offean.- Klink! (Bi metalen hotsa.)

IZARRA.- Jausi egin zait! Non ote da?

ZUHAITZA.- Hotsarengatik, esango nuke metal baten kontra jo duela.

IZARRA.- Hau gaua! Lehen, izpiak galdu, eta, orain, triangelua! Dena galtzen dut!

Offean.- Klink! (Bi metalen hotsa.)

IZARRA.- Hots hori... hemen dago, topatu dut! (Hobeto pentsatuta.) Ditut!

ZUHAITZA.- Topatu egin duzula esan nahi duzu? Baina ez dituzu bat baino gehiago galdu?

IZARRA.- Ondo esan dut, topatu egin ditut. Ez bat, ezta bi ere, hiru baizik!

IZARRA.- Eta begira nolako zarata egiten duten.

ZUHAITZA.- Musika-tresna bat dugu. Orkestra txiki bat egin dezakegu.

ILARGIA.- Nik zure adarretan jauziak egingo ditut, eta Izarrak triangelua joko du.

Abestia

HODEIA.- (Hurrei, zerutik.) Zoroen moduan abesten, animaliak iratzarriko dituzte. Dena dela, Eguzkia berehala sortuko da, eta abesteari utzi egingo diote.

00:29

KARATULA.- Bazen behin untxi txiki bat. Amatzorekin eta aitatzorekin bizi zen. Haren etxea lur azpian zegoen, eta, han, haien ohe lastozkoak.

KATTALIN.- Elurra, elurra! Dena elurrez estalita dago! Hau zorrea!

Ama, aita, banoa adiskideekin jolastera!

AMA.- Oso goiz da.

KATTALIN.- Hobeto, oraindik elurra ez du eta inork zapaldu. Gu izango gara lehenak!

KATTALINEN AMA.- Norekin zoaz?

KATTALIN.- Txikirekin eta Beltxikirekin, hirurok joango gara.

KATTALINEN AITA.- Kattalin kontuz ibili! Azeriak neguan ezin ditu animalia asko harrapatu. Goseak egongo da.

KATTALIN.- Hiruron artean garaituko dugu...!

00:30

KATTALINEN AITA.- Gosaldu, kontuz ibili, eta ondo pasa.

KATTALIN.- Hiru intxaur hartuko ditut: bi hauek Beltxikirentzat eta Txikirentzat, eta beste hau nirentzat. Nirea poltsiko honetan gordeko dut, eta beste biak, berriz, beste honetan.

BELTXIKI.- Heldu bezain laster, hamaiketako egin beharko dugu. Hau nekea!

TXIKI.- Kattalinen etxean haren amak zer edo zer emango digu jateko.

Offean AZERIA.- Hori, hori, zuek jan, eta gero nik jango dut.

AZERIA.- Hori, hori! Jan zuek lehenengo, eta gero nik jango zaituztet. Bi hemendik... eta beste bat hortik. Hau betekada hartuko dudana. Ezkutatu egingo naiz; bestela, ihes egingo dute.

KATTALIN.- Elurretan askoz gehiago kostatzen da ibiltzea, baina gero ondo pasatuko dugu...

BELTXIKI eta TXIKI.- Kattalin! Zure bila genbiltzan!

KATTALIN.- Beltxiki, Txiki! Ideia bera izan dugu: ni zuen etxera nindoan, eta zuek nirera! Hau zorrea!

Azeria offean.- Zorrea, zorrea... nirea: hiru animalia batera. Hirurak harrapatuko ditut.

BELTXIKI.- Zer moduz elurrezko panpina bat egiten badugu?

KATTALIN.- Harri handi honi birak ematen badizkiogu, bola handi bat egingo dugu.

AZERIA.- Nik haiek harrapatu nahi, eta haiek ni harrapatu naute! Uiiii, kaka zaharra!

BELTXIKI.- Orain burua ipiniko diogu.

TXIKI.- Egin dezagun beste bola bat!

KATTALIN.- Baina, orain, ez hain handia.

BELTXIKI.- Begiak-eta falta zaizkio.

KATTALIN.- Azenario bat ez duzue izango, ez da?

TXIKI.- Nik hiru; denontzat ekarri ditut. Ipintzen badiot, gero zer jango dugu? Ni goseak nago!

BELTXIKI.- Ez kezkatu, nik ere hamaiketako ekarri dut eta.

KATTALIN.- Eta nik!

Offean KATTALIN.- Nik hiru intxaur.

Offean TXIKI.- Nik hiru azenario.

Offean BELTXIKI.- Nik hiru mahaspasa.

TXIKI.- Ederki! Hamaiketako egingo dugu, eta gero panpina bukatuko dugu.

BELTXIKI.- Oso ondo egin dugu.

Offean KATTALIN.- Nik hiru gauza ditut berriro, baina, orain, ez dira berdinak: intxaur bat, mahaspasa bat eta azenario bat.

Offean BELTXIKI.- Nik hiru gauza ditut berriro, baina, orain, ez dira berdinak: azenario bat, mahaspasa bat eta intxaur bat.

Offean TXIKI.- Nik hiru gauza ditut berriro, baina, orain, ez dira berdinak: mahaspasa bat, azenario bat eta intxaur bat. Hirurok kopuru bera dugu.

KATTALIN.- Mahaspasa jango dut lehenengo, ummmm, intxaurra bigarren, eta azenarioa hirugarren.

00:34

BELTXIKI.- Nik ez! Nik azenarioa lehenengo, intxaurra bigarren, eta mahaspasa hirugarren. Eta zuk, Txiki?

TXIKI.- Azkena, mahaspasa izango da; postretzat jango dut (Eskuak erakusten ditu.)

TXIKI.- Bapo jan dut! Bukatu dut! Harriak bilduko ditut, eta, horrela, elur-panpina bukatu egingo dut.

(Besteek jaten jarraitzen dute.)

(Txikik, bitartean, harriak bilatzen ditu.)

(Metalezko Izarraren triangela aurkitu, eta besteei erakusten die.)

TXIKI.- Begira ezazue zer topatu dudan!

TXIKI.- Nondik atera ote da?

BELTXIKI.- Non aurkitu duzu?

TXIKI.- Hementxe.

DENAK.- Aaaa?

AZERIA offean.- (Bultzaka.) Orain, zuek harrapatzera noa! Uf!

BELTXIKI.- Goazen! Harrapatu egingo gaitu!

KATTALIN.- Zergatik kendu diozu triangela hori?

TXIKI.- Itzuli egingo diot. (Atzera begiratu gabe bota, eta hotsa entzuten da.)

AZERIA.- Oiiiiii! Hau kolpea!

Aiiiiii!

HONTZA.- (Hurrei.) Gaizki hasten dena, gaizki bukatzen da.

BIBLIOGRAFIA

RESURRECCION MARIA DE AZKUE: Euskalerraren Yakintza. Literatura Popular del País Vasco. EUSKALTZAINDIA & ESPASA CALPE

VILA, I.: "Adquisición y desarrollo del lenguaje" Narcea argitaletxea.

HEMSY DE GAINZA, V.: "La iniciación musical del niño" Ricordi Americana argitaletxea.

BEAUVERD, B.: "Antes del cálculo" Kapelusz argitaletxea.

LAPIERRE, A. Y AUCOUTURIER, B.: "Asociaciones de contrastes estructuras y ritmos"

EGILEAK:

PRODUKTOREA

Luisa Calvo

GIDOIA

Luisa Calvo

GIDOI TEKNIKOA

David Brea

SOINU-BANDA

Koldo Uriarte

ARTEZKO ZUZENDARIA

Ana Lidia Compañón

ARGAZKI-ZUZENDARIA

Ana Lidia Compañón

ZUZENDARIA

David Brea

EXEKUZIOKO LANGINTZA

Goiaz Digital Produkzioak

Eloy Val

EUSKARAKO

ARDURADUNA

Joan Ignazio Bereziartua

JARRAIPENA

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

TXOTXONGILOEN

EGILEAK

Jabier Mayor

Jabier Atxa

EDIZIOA

David Brea

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

INFOGRAFIA ETA TRATAMENDU DIGITALA

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

SOINUA

Goiaz Digital Produkzioak

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

SOINU-EDIZIOA

David Brea

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

KAMERALARIAK

David Brea

Feli Rodríguez

TXOTXONGILOEN

BIZI-EMAILEAK

Zigor Bilbao

Aitor Ormaechea

Ozkar Galán

AHOTSAK

Iker Galarza

Ane Garmendia

Aintzane Irazusta

Rakel Marin

Laura Murcia

Xabier Riezu

Asier Sota

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAREN LAGUNTZAZ EGINA.
LEGE GORDAILUA: VI-117/ 99

EIMA 98

L.C. PRODUKTOREA